# BESTELAKO XEDAPENAK

## INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

## 3614

*AGINDUA, 2011ko maiatzaren 16koa, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, 2011ko Euskal Turismo sariak ebatzi dituena.*

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2011ko martxoaren 16ko Aginduaren 8. artikuluan zehaztutakoaren arabera (EHAA, 60. zk., 2011ko martxoaren 28koa) Euskadiko Turismo sariak arautzen dituena, ikusita Euskal Turismo Sariak emateko 2011ko ekitaldiko deialdia iragarri duen Merkataritza eta Turismoko sailburuordearen 2011ko martxoaren 29ko Ebazpena (2011ko martxoaren 29ko EHAA, 61. zk.) ikusita,eta horretarako izendatutako Epaimahai Kalifikatzaileak egindako proposamena ezagututa, honako hau:

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.- 1.- Epaimahaiaren proposamena ikusita, 2011ko ekitaldiko Euskal Turismo Sariak honako hauei ematea:

Euskal Turismo Saria 2011: Añanako Gatz Harana Fundazioa.

Bi aipamen berezi: TO.PIC Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroa eta Bilboko Portu Agintaritza.

2.- Onuradunek, 2011ko martxoaren 16ko Aginduan ezarritakoari jarraiki, goraipamen, aintzatespen edo aipamen publikoa jasoko dute horretarako antolatutako ekitaldian.

AZKEN XEDAPENAK

Agindu honek amaitu egiten du administrazio-bidea; Aginduaren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa ezarri ahal izango zaio Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuari, hilabeteko epean, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko maiatzaren 16a.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburua,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.